

Bertako sagarraren aldeko apustua Bizkaian



Antonio Zamalloaren sagardotegian, Zornotzako Uxarten, egingo da denboraldi hasiera datorren asteazkenean. Luis JAUREGIALTZO | ARGAZKI PRESS

Bizkaiko bederatzi sagardotegiek ere prest dute aurtengo muztioa sagardoguztiek dasta dezaten. Guztira 120.000 litro egin dituzte, eta bertako sagarrarekin, eta upategik Jatorri Izendapean zigilua eramango dute. Aurtengo uzta iazkoa baino azkarragoa izan bada ere, Bizkai-

ko sagardogileek ahalegin berezia egin dute, azken urteotan bezala, herrialde honetako sagarra erabiltzeko.

Datorren asteazkenean, urtarilak 18, egingo dute irekiera ekitaldia Zornotzako Uxarte sagardotegian eta hortik maiatzera bitartean, 2016ko uztaren emaitza dastatu ahal izango dute sagardozaleek.

Uxarteko nagusi den Jose Antonio Zamalloak dioenez, ekitaldi horretan «gure lanaren emaitza erakutsiko diegu erakundeei eta komunikabideei, eta hortik

URTE BEREZIA

Sagar urtea ez delako izan eta udaberri hotza izan zelako, Bizkaiko sagardotegiak justu antzean ibili dira aurtur behar adina sagar lortzeko, baina azkenean ez dute kanpotik ekarri behar izan eta bertako sagarrarekin osatu dute aurtengo produkzioa.

aurrera ere gauza bera egingo dugu gure sagardotegietara hurbiltzen den jende guztiarekin. Hau da, sagardoaren prozesu guztia sagarrondotik hasi eta botilaratzen den arte, beti ere baserriko jardueren testuinguruan kokatuta.

SAGARDOAREN EZAUGARRIAK

Aurtengo sagardoaren ezaugarriak dagokienez, «gorputz eta usain onekoak» eta «graduazio zertxobait altuagokoak» izango direla dio Zamalloak. Hala ere, oraindik goiz dela dio. «Mo-

mentuz itxura ona duela dirudi, egitura bikaina duelako eta sagardo sana delako, baina hobe da hilabete pare bat itxarotea nola geratu den jakiteko».

Gainera, ezaugarri horiek ez dutela sagardo guztientzat balio nabarmentzen du. «Sagardo guztia ez da batera egiten, eta urria hasieran egindako sagardoak eta azaroan egindakoak ez daukate zerikusirik», azaldu du.

Sagarrari dagokionez, aurtengo uzta eskasa izan dela dio. Alde batetik, ez delako sagar urtea izan (bi urtetik behin izaten da) eta bestetik, eguraldia ez delako ohikoa izan. «Neguan ez zuen hotzik egin, baina bai udaberrian, eta horregatik lore asko galdu zen», dio Zamalloak.

Bestalde, uda lehorra eta beroa izan zela gogoratu du. Hala ere, Zamalloaren iritziz, «horrek ez dauka horrenbesteko garrantzirik, iraileko euriek egoera konpondu zutelako. Frutagintzan inportanteena neguan hotza egitea da, arbolak gelditze-ko, eta horregatik esaten dugu neguan erabakitzen dela hurrengo urteko produkzioa».

Bi arrazoi hauengatik Bizkaiko sagardotegiak aurtur justu antzean ibili dira behar adina sagar lortzeko. «Beste urte batzuetan sagar asko bidaltzen dugu Gipuzkoara, baina aurtur justu ibili gara gure beharrak asetzeko», dio Uxarteko nagusiak.

Hala eta guztiz ere, ez dute kanpotik ekarri behar izan eta bertako sagarrarekin osatu dute aurtengo produkzioa. Jose Antonio Zamalloak dioenez, horixe da Bizkaiko Sagardogileen Elkartearen oinarrietako bat, eta horri eusten saiatuko dira aurrerantzean ere.

Bizkaian, bizkaiko sagardoa

Berriatua

Laka-Erdi Sagardoa
Juan Amallobieta Arriola
Tel.: 94 613 91 78

Lezama

Erdikoetxe Sagardoa
Andoni Ojanguren Zorroza
Tel.: 94 457 32 85

Gatika

Etxebarria Sagardoa
Itxiar Etxebarria
Tel.: 94 674 20 10

Markina-Xemein

Axpe Sagardoa
José Antonio Bilbao
Tel.: 94 616 82 85

Gatika

Eguskiza Sagardoa
Maribel Abajo
Tel.: 661 296 915

Zornotza

Uxarte Sagardoa
José Antonio Zamalloa
Tel.: 94 630 88 15

Gizaburuaga

Laneko Koop
Leartibai Sagardoa
Tel.: 94 684 20 26

Zornotza

Etzerriaga Sagardoa
Unai Bilbao
Tel.: 607 601 925



**bizkaiko
sagardogileak**

Bizkaiko
sagardoaren
alde egin,
anima zaitez